



2013ko uztaila-[Enpresaren ekonomia - Ezohiko deialdia \(pdf , 372.87 KB\)](#)

A AUKERA

1. Aurrekontu, Kapital-zabalkuntza, Laudo, ABEE, Autofinantzaketa, Babesle 2 +

a. Definitu eta komentatu letra lodiz nabarmendutako hitzen esanahia.

b. Azaldu zer den efektu-deskontu bat eta zergatik den finantzaketa mota bat.

2. BEG eta Pay Back 2,5

3. Eskaera Puntua 2 +

4. Errentagarritasun Atalasea 2

5. Likidezia, Finantza-autonomia, Ibilgetua 1,5

B AUKERA

1. Bolantes 2

2. Produktibitatea 2,5

3. Balantzea 4: Ibilgetua - Zorpetze osoa - Diruzaintza edo altxortegia - Finantza-autonomia - Likidezia

4. Marketing, Merkatu-segmentua: 1,5

- Azal ezazu azpimarratuta dauden hitzen esanahia.
- Azal itzazu marketing-mix-aren osagaiak edo politikak.

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

LAUDO BATEK 1,8 MILIOI GEHIAGO ORDAINTZERA BEHARTZEN DU ALHONDIGAKO LANENGATIK

Bilboko Udalak 2013ko **aurrekontu**-proiektua aurkeztu berria du, eta jada lehen ustekabeari aurre egin behar izan dio. 1,8 milioi euro gehiago ordaindu beharko ditu Alhondigako lanengatik, —jada amaitutzat jotzen zuen kapitulua—, sozietate kudeatzailearen **kapital-zabalkuntza** baten bitartez. Hala ezartzen du **laudo** batek, lanen zuzendaritzaren eta kontratu nagusien esleipen-hartzailearen arteko bi urteko gatazkaren ondoren.

Azkenik, arbitrajera jo behar izan zen, eta prozesuaren ebazpenak nabarmen handitzen ditu 2013ko aurrekonturako aurreikuspenen ekarpena. **ABEE**ak (Aldi Baterako Enpresa Elkarteak), igeltserotzako eta instalazioetako kontratuen eta akaberen arduradunak, erreklamazio bat aurkeztu zuen lanak amaitu

zirenean, ulertzen baitzuen kitapenaren zenbatekoak ez zuela estaltzen egindako lana.

Nahiz eta berri txarra izan, **autofinantzaketa**-maila nabarmen handitzen ari da kiroletako jardueraren, operadoreen eta **babesletzen** diru-sarrerengatik.

Galdekizunak:

- Definitu eta komentatu letra lodiz nabarmendutako hitzen esanahia.
- Azaldu zer den efektu-deskontu bat eta zergatik den finantzaketa mota bat.

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

George Clooney-rekin lanean ari den laguntzaile batek kafeaz arduratu behar du. Eta Nespresso-ko bi makinatan inberti dezake. Lagundu iezaiozu, hau kontuan hartuta: haren nagusiak, aktoreak, inflaziorik gabe % 8ko errentagarritasuna ateratzen dio, eta urteko inflazio-tasa metatua % 4 da.

Lehen inbertsioa makina berri bat izango da; bigarrena, berriz, bigarren eskuko bat, modelo zaharrago batekoa eta, ondorioz, ekoizpen-ahalmen txikiagokoa.

- 1. inbertsioa: Urtero-urtero 65.000 kafe salduko lituzke, bakoitza euro batean, kostu finkoak 13.000 euro izanik eta kostu aldakorak 0,21 euro unitateko. Makina berria denez, amaieran haren hondar-balioa 9.000 euro izango da. Hasierako ordainketa 105.000 € izango da, eta inbertsioak 4 urteko iraupena izango du.
- 2. inbertsioa: Bigarren urtearen bukaeran, kafe-makina berri ez denez, iragazkiak aldatu behar dira, eta 7.000 €-ko kostua izango du. Urtero-urtero 43.000 kafe salduko lituzke, bakoitza euro batean, kostu finkoak 11.000 euro izanik eta unitateko kostu aldakorak 0,15 euro izanik. Makinak, bigarren eskukoak denez, ez du hondar-baliorik. Hasierako ordainketa 89.000 € izango da, eta inbertsioak 4 urteko iraupena izango du.

Kalkula ezazu:

- 1. Zer inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
- 2. Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-epearen (Pay Back) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.

- 3. Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

NATUR S.COOP.k esnekiak ekoizten ditu. Urtean 240.000 litro esne kontsumitzen ditu ekoizpenean. Esne-hornitzaileari urtean 12 eskaera egiten dizkio, eta 1.000 litroko segurtasun-stocka mantentzen du. Hornikuntza-epea 5 egunekoa izanik, kalkula itzazu kontzeptu hauek, eta adierazi emaitzaren esanahia:

- a) Eskaera-puntua.
- b) Stockaren batez besteko maila.
- c) Errotazio-indizea.
- d) Batez besteko biltegiaritze-epea.
- e) Egin irudikapen grafikoa.
- f) Zer gertatuko da biltegian bigarren eskaera 7 egun atzeratzen bada? Egin irudikapen grafikoa.

A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

Elkarta enpresak automobilgintzako pieza bat ekoizten du. Enpresa horrek 12.000 unitate ekoizteko eta saltzeko ahalmena du. Horretarako, 200.000 euroko kostu finkoak ditu, eta unitate bakoitzeko kostu aldakorak 40 € dira. Enpresak unitateko 60 €-an saltzen du bere produktua.

Erantzun galdera hauei:

- a) Zein da enpresa honen itopuntua (errentagarritasun-atalasea)? Zein da itopuntuaren esanahia? Egizu haren irudikapen grafikoa, eta adierazi zein diren galera-eremua eta irabazien eremua.
- b) Enpresak ekoizpenean izan dituen zenbait arazo direla eta, haren benetako ekoizpena ekoizpen potentzialaren % 80an gelditu da. Hori kontuan izanik, zein izan da enpresaren emaitza ekonomikoa?
- c) Hobekuntza teknologikoen ondorioz kostu aldakorak % 10 murriztuko balira, zein izango litzateke itopuntu berria? Irudika ezazu grafikoki.

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu.

Defini itzazu finantza-ratio hauek:

- Likidezia.
- Finantza-autonomia.
- Ibilgetua.

B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

HOI enpresak Portugaleko enpresa bati ate-sarrailak erosten dizkio, eta 14.000 unitate erosteagatik 26.600 € ordaindu ditu. Orain, sarrailak ekoiztea aztertzen ari da HOI enpresa, eta, 25.000 unitate ekoizteko, 22.525 €-ko kostu finkoak eta 9.500 €-ko kostu aldakorak aurreikusi ditu.

Erantzun ezazu:

- a) Zein da ekoizpen minimoa HOI enpresak sarrailak ekoiztea erabaki dezan?
- b) Egin a) puntuaren adierazpen grafikoa.
- c) Enpresak 15.000 unitate behar izanez gero, zer da hobe: erostea ala ekoiztea?
- d) Enpresak 20.000 sarraila behar izanez gero, zein izan beharko luke erosketa-prezio maximoak erostea ekoiztea baino erabaki hobe izan dadin?

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Donostiako bi liburutegitako datu hauek ditugu. Okendoko liburutegian, 2 liburuzain eta 4 liburuzain laguntzailek lan egiten dute (guztira, 6 langile), eta urtean 296 egun dago liburutegia zabalik. 2012an, guztira, 80.518 zerbitzu eskaini zituzten.

Alderdi Ederreko liburutegi nagusian, 5 liburuzain eta 5 liburuzain laguntzailek lan egiten dute (guztira, 10), eta urtean Okendoko liburutegia beste egun dago irekita. 2012an, 128.465 zerbitzu eskaini zituzten.

Erantzun ezazu:

- a) Zein da langileko eta eguneko produktibitatea bi liburutegietan?
- b) Egin ezazu bi liburutegien produktibitatearen konparazioa ehunekotan (%)
- c) Kontuan izanik Okendoko liburutegia urtean 2.464 ordu irekita dagoela eta Alderdi Ederrekoa 2.887 ordu, zenbat zerbitzu eskaini beharko luke Alderdi Ederreko liburutegiak biek langileko eta orduko produktibitate berdina izateko?

B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu

UNAMUNO SA aroztegiari, ondarea, ekitaldiaren amaieran, elementu hauek osatzen dute:

- Enpresan duen eskudirua 2.600 €
- Bulegoan dauden altzariak 6.000 €
- Kapital Soziala ????
- Ogasun Publikoarekin duen zorra 70.000 €
- Bezeroei kobratzeko dituen letrak 22.880 €
- 18 hilabete barru BBVAri itzuli behar dion mailegua 84.000 €
- Biltokian dagoen zura 16.000 €
- Tailerrean dagoen makineria. 660.000 €
- Zura erosteagatik MADERAS CARPASARI zor diona 74.000 €
- Erreserbak 230.000 €
- Tailerra kokaturik dagoen pabiloia 347.300 €
- BBKko mailegua, 6 hilabete barru itzuli beharrekoa 6.000 €
- Zenbait lan egiteagatik kobratzeko dituen fakturak 3.120 €

- Lan egiteko erabiltzen duen kamioia 84.000 €
- Hartzekodun batzuekin onartuak dituen ordaintzeko letrak 11.000 €
- Bulegoan dituen ordenagailuak 2.700 €
- Gizarte Segurantzarekin duen zorra 2.000 €
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua 291.000 €
- BBVAko kontu korrontean duen dirua 23.400 €

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzea eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua.
 - Zorpetze osoa.
 - Diruzaintza edo altxortegia.
 - Finantza-autonomia.
 - Likidezia.

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu

Irakur ezazu testu hau, eta erantzun ondoren dauden galderei:

Merkataritza-arloko edozein enpresaren helburu nagusia ahalik eta gehien saltzea da; hala ere, planteamendu horrek **marketin**-estrategia eta -teknika egokiak behar ditu. Halaber, berebiziko garrantzia du marka bakoitza **merkatu-segmentu** egokira zuzenduta egoteak. Horretarako, enpresak merkatu-azterketa edo ikerketa komertziala du ezinbesteko tresna.

Galderak:

- Azal ezazu azpimarratuta dauden hitzen esanahia.
- Azal itzazu marketing-mix-aren osagaiak edo politikak.



A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

LAUDO BATEK 1,8 MILIOI GEHIAGO ORDAINTZERA BEHARTZEN DU ALHONDIGAKO LANENGATIK

Bilboko Udalak 2013ko **aurrekontu**-proiektua aurkeztu berria du, eta jada lehen ustekabeari aurre egin behar izan dio. 1,8 milioi euro gehiago ordaindu beharko ditu Alhondigako lanengatik, —jada amaitutzat jotzen zuen kapitulua—, sozietate kudeatzailearen **kapital-zabalkuntza** baten bitartez. Hala ezartzen du **laudo** batek, lanen zuzendaritzaren eta kontratu nagusien esleipen-hartzailearen arteko bi urteko gatazkaren ondoren.

Azkenik, arbitrajera jo behar izan zen, eta prozesuaren ebazpenak nabarmen handitzen ditu 2013ko aurrekonturako aurreikuspenen ekarpena. **ABEE**ak (Aldi Baterako Enpresa Elkarteak), igeltserotzako eta instalazioetako kontratuen eta akaberen arduradunak, erreklamazio bat aurkeztu zuen lanak amaitu zirenean, ulertzen baitzuen kitapenaren zenbatekoak ez zuela estaltzen egindako lana.

Nahiz eta berri txarra izan, **autofinantzaketa**-maila nabarmen handitzen ari da kiroletako jardueraren, operadoreen eta **babesletzen** diru-sarrerengatik.

Galdekizunak:

- Definitu eta komentatu letra lodiz nabarmendutako hitzen esanahia.
- Azaldu zer den efektu-deskontu bat eta zergatik den finantzaketa mota bat.

ERANTZUNAK

- [Aurrekontu](#)
- [Kapital-zabalkuntza](#) (GAZTELERAZ)
- Laudo = sententzia
- ABEE
- [Autofinantzaketa](#)
- Babesletu

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

George Clooney-rekin lanean ari den laguntzaile batek kafeaz arduratu behar du. Eta Nespresso-ko bi makinatan inberti dezake. Lagundu iezaiozu, hau kontuan hartuta: haren nagusiak, aktoreak, inflaziorik gabe % 8ko errentagarritasuna aterata nahi dio, eta urteko inflazio-tasa metatua % 4 da.

Lehen inbertsioa makina berri bat izango da; bigarrena, berriz, bigarren eskuko bat, modelo zaharrago batekoa eta, ondorioz, ekoizpen-ahalmen txikiagokoa.

- 1. inbertsioa: Urtero-urtero 65.000 kafe salduko lituzke, bakoitza euro batean, kostu finkoak 13.000 euro izanik eta kostu aldakorak 0,21 euro unitateko. Makina berria denez, amaieran haren hondar-balioa 9.000 euro izango da. Hasierako ordainketa 105.000 € izango da, eta inbertsioak 4 urteko iraupena izango du.
- 2. inbertsioa: Bigarren urtearen bukaeran, kafe-makina berria ez denez, iragazkiak aldatu behar dira, eta 7.000 €-ko kostua izango du. Urtero-urtero 43.000 kafe salduko lituzke, bakoitza euro batean, kostu finkoak 11.000 euro izanik eta unitateko kostu aldakorak 0,15 euro izanik. Makinak, bigarren eskukoa denez, ez du hondar-baliorik. Hasierako ordainketa 89.000 € izango da, eta inbertsioak 4 urteko iraupena izango du.

Kalkula ezazu:

- 1. Zer inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera? Arrazoitu erantzuna.
- 2. Eta inbertsio bakoitzaren berreskuratze-epearen (Pay Back) irizpidea erabiliz, zein da egokiena? Arrazoitu erantzuna.
- 3. Bi irizpideetatik, zein da egokiena? Zergatik?

Egin gabeeeee!

Inbertsio egitasmoa	Hasierako despoltsapena	1. urtea	2. urtea	3. urtea
A				
B				

a.

$$k = i + g + i \cdot g = 0,08 + 0,03 + 0,08 \cdot 0,03 = 0,1124 = \%11,24$$

$$BEG = -A + \frac{Q_1}{1+k} + \frac{Q_2}{(1+k)^2} + \frac{Q_3}{(1+k)^3}$$

A

$$BEG = -200.000 + \frac{70.000}{1+0,1124} + \frac{90.000}{(1+0,1124)^2} + \frac{300.000}{(1+0,1124)^3}$$

$$= -200.000 + \frac{70.000}{1,1124} + \frac{90.000}{1,1124^2} + \frac{300.000}{1,1124^3} =$$

$$= -200.000 + 62.927 + 72733,15 + 217.944,06 = 153.604,21$$

B

$$BEG = -300.000 + \frac{64.000}{1+0,1124} + \frac{95.000}{(1+0,1124)^2} + \frac{300.000}{(1+0,1124)^3} =$$

$$= -300.000 + \frac{64.000}{1,1124} + \frac{95.000}{1,2374} + \frac{300.000}{1,3765} =$$

$$= -300.000 + 57.533,26 + 76.773,88 + 217.944,06 = 52.251,2$$

Balio Eguneratu Garbiaren irizpidea erabilita, lehenengo proiektua aukeratuko genuke.

a.

Pay Back metodoaren arabera,

- A: 3 urte
- B: 3 urte
- Biak berdin ateratzen zaizkigu, 3. urtera arte ez baitugu jarritako dirua berreskuratzen. Egia da, hirugarren urte horretan lehen proiektuan hasieran erreperatzen dela (40.000) eta gainontzekoa irabazia (260.000) dela. Bigarrenean, berriz, hirugarren urteko ia dena behar da hasierako despoltsapena berreskuratzeko (300.000) eta oso irabazi txikia geratzen da (1.000). Hala ere, emaitza bi kasuetan 3 urte da.

Pay Back metodoaren hutsuneak:

- Ez du kontuan hartzen noizkoak diren kaxa-fluxuak. Hurrengo hau berdina litzateke:

Inbertsio egitasmoa	Hasierako despoltsapena	1. urtea	2. urtea	3. urtea
A 2	-200.000 €	280.000 20.000 300.000 €	100.000 -10.000 90.000 €	-100.000 170.000 70.000 €

Metodo horren arabera, A2 eta A3 berdinak dira. Emaitza 3 urte da.

- Ondorengo kaxa-fluxuak ere ez ditu kontuan hartzen. Hurrengo hau berdina litzateke:

Inbertsio egitasmoa	Hasierako despoltsapena	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea
A 3	-200.000 €	-100.000	100.000	280.000	89.999.999 €

		170.000	-10.000	20.000	
		<u>70.000 €</u>	<u>90.000 €</u>	<u>300.000 €</u>	

Bi proiektu hauek ere berdina dira metodo honentzat. Emaita = 3 urte

- Moneta unitateak batzen dira, homogeneoak balira bezala eta hasierako despoltsapenarekin alderatzen ditu. Urteak pasatzen dira eta batuketa soila egiten da. Adibidez: orain 40 urte erositako pisuaren balioa, oraingo pisuaren balioarekin batzen da, inflaziorik ez balego bezala...

A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

NATUR S.COOP.k esnekiak ekoizten ditu. Urtean 240.000 litro esne kontsumitzen ditu ekoizpenean. Esne-hornitzaileari urtean 12 eskaera egiten dizkio, eta 1.000 litroko segurtasun-stocka mantentzen du. Hornikuntza-epea 5 egunekoa izanik, kalkula itzazu kontzeptu hauek, eta adierazi emaitzaren esanahia:

- a) Eskaera-puntua.
- b) Stockaren batez besteko maila.
- c) Errotazio-indizea.
- d) Batez besteko biltegiatze-epea.
- e) Egin irudikapen grafikoa.
- f) Zer gertatuko da biltegian bigarren eskaera 7 egun atzeratzen bada? Egin irudikapen grafikoa.

ERANTZUNA

DATUAK

- 240.000 l esne kontsumitzen du ekoizpenean urtean.
- Urtean 12 eskaera
- SS = 1.000 l
- Hornikuntza-epea = 5 egun

a. ESKAERA PUNTUA

- $\frac{240.000}{12} = 20.000$ l eskatzen du aldiko
- 30 egun ----- 20.000 l
5 egun----- $x = \frac{5 \cdot 20.000}{30} = \frac{10.000}{3} = 3.333,33...$ lgastatuko luke Hornikuntza Epean
- Eskaera Puntua = SS + Hornidura Epeko kontsumoa = $1.000 + 3.333,3 = 4.333,3$ l = EskPuntua

b. STOCKAREN BATEZBESTEKO MAILA

- Gehiena = $1.000 + 20.000 = 21.000$ l
- Gutxienekoa ----- 1.000 l

$$\text{Stockaren batezbesteko maila} = \frac{\text{Gehiena} + \text{Gutxienekoa}}{2} = \frac{1.000 + 21.000}{2} = 11.000 \text{ ale egoten da batez beste}$$


c. ERROTazio INDIZEA

$\frac{\text{Urtekoa}}{\text{Batez bestekoa}} = \frac{240.000}{11.000} = 21,81 \text{ aldiz}$ **(Egia esan, 12 beharko luke! 12 aldiz errepikatzen delako prozesua!)**

d. BATEZ BESTEKO BILTEGIRATZE EPEA

$\frac{360}{\text{Errotazioa}} = \frac{360}{21,81 \text{ (edo 12!)}} = 13,16 \text{ egunez}$ egoten da input denetik output denera arte.


e.ADIERAZPEN GRAFIKOA



f. ZER GERTATUKO DA BILTEGIAN BIGARREN ESKAERA 7 EGUN ATZERATZEN BADA? + GRAFIKOA

- 30 egun-----20.000 l
- 7 egun -----x

$x = \frac{20.000 \cdot 7}{30} = \frac{14.000}{3} = 4.666,6 \text{ kg}$ gastatuko luke. SSarekin ez du nahikoa izango!!!
4.666,6 l beharko ditu eta 4.333,3 bakarrik dauzka. Stock Haustura gertatuko zaio eta dirua galduko duuuuu!

**A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu**

Elkarta enpresak automobilgintzako pieza bat ekoizten du. Enpresa horrek 12.000 unitate ekoizteko eta saltzeko ahalmena du. Horretarako, 200.000 euroko kostu finkoak ditu, eta unitate bakoitzeko kostu aldakorak 40 € dira. Enpresak unitateko 60 €-an saltzen du bere produktua.

Erantzun galdera hauei:

- a) Zein da enpresa honen itopuntua (errentagarritasun-atalasea)? Zein da itopuntuaren esanahia? Egizu haren irudikapen grafikoa, eta adierazi zein diren galera-eremua eta irabazien eremua.
- b) Enpresak ekoizpenean izan dituen zenbait arazo direla eta, haren benetako ekoizpena ekoizpen potentzialaren % 80an gelditu da. Hori kontuan izanik, zein izan da enpresaren emaitza ekonomikoa?
- c) Hobekuntza teknologikoen ondorioz kostu aldakorak % 10 murriztuko balira, zein izango litzateke itopuntu berria? Irudika ezazu grafikoki.

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu.

Defini itzazu finantza-ratio hauek:

- Likidezia.
- Finantza-autonomia.
- Ibilgetua.

B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

HOI enpresak Portugalgo enpresa bati ate-sarrailak erosten dizkio, eta 14.000 unitate erosteagatik 26.600 € ordaindu ditu. Orain, sarrailak ekoiztea aztertzen ari da HOI enpresa, eta, 25.000 unitate ekoizteko, 22.525 €-ko kostu finkoak eta 9.500 €-ko kostu aldakorak aurreikusi ditu.

Erantzun ezazu:

- a) Zein da ekoizpen minimoa HOI enpresak sarrailak ekoiztea erabaki dezan?
- b) Egin a) puntuaren adierazpen grafikoa.
- c) Enpresak 15.000 unitate behar izanez gero, zer da hobe: erostea ala ekoiztea?
- d) Enpresak 20.000 sarraila behar izanez gero, zein izan beharko luke erosketa-prezio maximoak erostea ekoiztea baino erabaki hobe izan dadin?

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Donostiako bi liburutegitako datu hauek ditugu. Okendoko liburutegian, 2 liburuzain eta 4 liburuzain laguntzailek lan egiten dute (guztira, 6 langile), eta urtean 296 egun dago liburutegia zabalik. 2012an, guztira, 80.518 zerbitzu eskaini zituzten.

Alderdi Ederreko liburutegi nagusian, 5 liburuzain eta 5 liburuzain laguntzailek lan egiten dute (guztira, 10), eta urtean Okendoko liburutegia beste egun dago irekita. 2012an, 128.465 zerbitzu eskaini zituzten.

Erantzun ezazu:

- a) Zein da langileko eta eguneko produktibitatea bi liburutegietan?
- b) Egin ezazu bi liburutegien produktibitatearen konparazioa ehunekotan (%)
- c) Kontuan izanik Okendoko liburutegia urtean 2.464 ordu irekita dagoela eta Alderdi Ederrekoa 2.887 ordu, zenbat zerbitzu eskaini beharko luke Alderdi Ederreko liburutegiak biek langileko eta orduko produktibitate berdina izateko?

EGIN GABEEEE

	Langileak	Orduak	Unitateak
Iaz	100	1.824	4.000.000
Aurten	200	1.824	11.000.000

a.

$$\text{Produktibitatea} = \frac{\text{Ekoizpena}}{\text{Lan unitateak}}$$

- A

$$Produktibitatea = \frac{4.000.000}{100 \cdot 1.824} = 21,93$$

- B

$$Produktibitatea = \frac{11.000.000}{200 \cdot 1.824} = 30,15$$

Aurten, langile kopuru bikoitza izan dute, baina bikoitza baino gehiago ekoiztu dute. Produktibitate hobe izan da!

B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu

UNAMUNO SA aroztegiari, ondarea, ekitaldiaren amaieran, elementu hauek osatzen dute:

- Enpresan duen eskudirua 2.600 €
- Bulegoan dauden altzariak 6.000 €
- Kapital Soziala ????
- Ogasun Publikoarekin duen zorra 70.000 €
- Bezeroei kobratzeko dituen letrak 22.880 €
- 18 hilabete barru BBVAri itzuli behar dion mailegua 84.000 €
- Biltokian dagoen zura 16.000 €
- Tailerrean dagoen makineria 660.000 €
- Zura erosteagatik MADERAS CARPASARI zor diona 74.000 €
- Erreserbak 230.000 €
- Tailerra kokaturik dagoen pabiloia 347.300 €
- BBKko mailegua, 6 hilabete barru itzuli beharrekoa 6.000 €
- Zenbait lan egiteagatik kobratzeko dituen fakturak 3.120 €
- Lan egiteko erabiltzen duen kamioia 84.000 €
- Hartzekodun batzuekin onartuak dituen ordaintzeko letrak 11.000 €
- Bulegoan dituen ordenagailuak 2.700 €
- Gizarte Segurantzarekin duen zorra 2.000 €
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua 291.000 €
- BBVAko kontu korrontean duen dirua 23.400 €

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua.
 - Zorpetze osoa.
 - Diruzaintza edo altxortegia.
 - Finantza-autonomia.
 - Likidezia.

EGIN GABEEEE

- Enpresaren egoera-balantzea ondare masetan aurkeztuta

AKTIBOA		ONDARE GARBIA eta PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		ONDARE GARBIA	
IBILGETU UKIEZINA		FONDO PROPIOAK	
IBILGETU MATERIALA		Kapital Soziala	585.000
Lurra	123.000	Erreserbak	51.000
Lokala	370.000	Eraitza	54.000
Altzariak	23.000		
Ordenagailuak	2.000	PASIBO EZ-KORRONTEA	
Amortizazioa		E/LUZ ZORRAK	
	-17.000	Maileguak 4 urte	60.000
ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK			
E/LUZ FINANTZA-INBERTSIOAK			
	501.000		690.000
AKTIBO KORRONTEA		PASIBO KORRONTEA	
IZAKINAK		E/LAB ZORRAK	
Biltegia	105.000	HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ORDAINTEKO KONTUAK ETA BESTELAKO	
ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRAITZEKO BESTELAKO KONTUAK		Fakturak	66.000
Eskubideak	105.000	Hornitzaileak	84.000
Bezeroak	45.000	Gizarte Segurantzza	15.000
		BEZ	6.000
E/LAB FINANTZA-INBERTSIOAK			
ESKUDIRUA ETA BESTELAKO AKTIBO LIKIDO BALIOKIDEAK			

Bankuak	88.000		
Eskudirua	2.000		
	360.000		171.000
<u>AKTIBOA GUZTIRA</u>	861.000	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	861.000

- **Bazkideen ekarpena = 585.000 €**
- **b) Errotazio Fondoa edo Maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.**

501.000	690.000
360.000	171.000

Maniobra Fondoa = 690.000 - 501.000 = 72189.000 €

Enpresa ondo doa. Bere kapital finkoek behar finkoei erantzun eta aktibo korrontearen behar batzuk ere betetzen ditu.

- **c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:**

$$\circ \text{ Ibilgetuaren Ratioa} = \frac{\text{Ibilgetua}}{\text{PF}} \cdot 100 = \frac{501.000}{690.000} \cdot 100 = \%72,6$$

Balio Hobeza 100 baino txikiagoa da

$$\circ \text{ Zorpetzea} = \frac{\text{Pasiboa}}{\text{Ondare Garbia eta Pasiboa}} = \frac{231.000}{861.000} = 26,82\%$$

- Enpresaren zorren eta Ondare Garbiaren eta Pasiboaren arteko erlazioa da.
- Ratio honek enpresaren finantziazioaren kalitatea egiaztatzen du, zorpetzearekiko edo kanpo finantziaziorako duen mendekotasunari dagokionez.
- Balio optimoa zein den ez dago zehaztua, baina 0,2 eta 0,8 artean komeni da.
- Balioa zenbat eta handiagoa izan, enpresak orduan eta mendekotasun handiagoa izango du finantziazioarekiko.

$$\circ \text{ Zorpetze Osoa} = \frac{\text{Galdagarria}}{\text{NK}} \cdot 100 = \frac{231.000}{690.000} \cdot 100 = \%33,47$$

Enpresaren zorpetze maila neurtzen du.

Balio hobeza 50 eta 120 artean dago.

- 120 baino handiagoa bada, zorpetzea gehiegizkoa da eta finantza autonomia galtzen ari da. Hau da kasu hau
- 50-120 artean badago, zorpetze egokia da.
- 50 baino txikiagoa bada, baliabide propioak ez direla ondo erabiltzen esan

nahiko luke.

$$\circ \text{ Diruzaintza} = \frac{\text{Erabilgarria} + \text{Kobratzeko eskubidea}}{\text{Galdagarria epe motzera}} \cdot 100 = \frac{90.000 + 150.000}{171.000} \cdot 100 = \frac{240.000}{171.000} \cdot 100 = \%140,35$$

Tesoreria arazorik ez izateko ratio honen balioa 100 ingurukoa behar du. Egokia dela kontsidera daiteke. Agian, altu samarra...

$$\circ \text{ Likidezia} = \frac{\text{AZ}}{\text{PZ}} \cdot 100 = \frac{360.000}{171.000} \cdot 100 = \%210,72$$

100 baino handiagoa baldin bada, altxortegiko saldo garbia positiboa da. Epe laburreko mugaeguna duten zorren euro bakoitzeko, denboraldi labur horretan kobratuko dugun aktiboan, euro bat baino gehiago kobratu dugu.

Oro har, ratioaren balio hoberenak 80tik 100era bitartekoak jotzen dira. Kasu honetan handiegia da. Ez du hainbesteko likidezirik behar

$$\circ \text{ Bermearen Ratioa} = \frac{\text{Aktiboa}}{\text{PGaldagarria}} \cdot 100 = \frac{861.000}{231.000} \cdot 100 = \%372,72$$

Balio Hobezina 100 baino txikiagoa da. Ondoegi dago.

$$\circ \text{ FinantAuton} = \frac{\text{NK}}{\text{Aktiboa}} \cdot 100 = \frac{690.000}{861.000} \cdot 100 = \%80,13$$

Enpresan inbertituriko euro bakoitzeko, zati bat akziodunen finantza-baliabideek finantzatuta dago. Ratioa zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta autonomia gehiago izango du. Ratioa negatiboa izan daiteke –porrot tekniko- orduan ezin da 100 baino handiagoa izan.

Ratio honetan ondo dabil

Finantza Autonomia eskasa du eta mailegu ugari erabiltzen du. Egia da, mailegu horiek ez dira oraintxe bertan itzuli beharrekoak, epe luzekoak baizik, baina, gerora begira, aldaketaren bat egin beharrean da.

Bestalde, Maniobra Fondoa ondo atera zaio eta, momentuz, lasai ibil daiteke.

Hala ere, Likidezia gehiegirekin dabil. Agian, arrazoiren bat du horretarako, baina bestela, hori doitu beharko luke, aurreko puntua neurri batean, behintzat, konpon ahal izateko...

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu

Irakur ezazu testu hau, eta erantzun ondoren dauden galderei:

Merkataritza-arloko edozein enpresaren helburu nagusia ahalik eta gehien saltzea da; hala ere, planteamendu horrek **marketin**-estrategia eta -teknika egokiak behar ditu. Halaber, berebiziko garrantzia du marka bakoitza **merkatu-segmentu** egokira zuzenduta egoteak.

Horretarako, enpresak merkatu-azterketa edo ikerketa komertziala du ezinbesteko tresna.

Galderak:

- Azal ezazu azpimarratuta dauden hitzen esanahia.
- Azal itzazu marketing-mix-aren osagaiak edo politikak.

